


2013. urtean, ostalaritzako enpresen negozio-zifra % 2,3 handitu zen

Sektoreak 53.000 pertsona gehiagori eman zien lana eta mikroenpresak (10 langile baino gutxiago) establezimenduen % 94,7 izan ziren

Ostalaritza sektoreak (ostatu-emate eta jaki eta edarien zerbitzua) 5.264 milioi euro fakturatu zituen 2013an, Eustaten jasotako datuen arabera; hau da, 2012. urtean baino % 2,3 gehiago. Enpleguari dagokionez, 872 pertsona gehiago aritu ziren lanean. Horrek esan nahi du 53.295 pertsonak egin zutela lan 2013an; hau da, % 1,7ko igoera gertatu zela. Hala ere, osotasunean, 60 establezimendu garbi baino pixka bat gehiago galdu ziren, % 0,4; beraz, 14.088 zeuden martxan.

1. grafikoa. Ostalaritza sektoreko negozio-zifraren banaketa, jarduerataldearen arabera (milioi €-tan). 2013



Iturria: Eustat. Zerbitzuen estatistika

Jaki eta edarien atala –jattetxeak, bestelako jaki-zerbitzuak eta edari establezimenduak barne hartzen ditu– da garrantzitsuena, fakturazio-bolumenari dagokionez, % 88,4koa baita,

eta bilakaera onena ere atal honek izan du: bere fakturazioa % 2,7 hazi zen eta enplegua %2,5. Aldiz, ostatu-zerbitzuen atalak –hotelak eta bestelako ostatu-zerbitzuak azpiatalak barne hartzen ditu– negozio-zifra osoaren % 11,6 bereganatu zuen eta bilakaera negatiboa izan zuen: bere negozio-zifran jaitsiera txiki bat izan zuen (–% 0,5) eta enplegua % 4,6 jaitsi zen.

1. koadroa. Aldagai nagusiak, jarduera-taldearen arabera (mila euro). 2013

	GUZTIRA		Hotelak		Beste ostatuak		Jatetxeak		Beste jan-zerbitzuak		Edari-establezimenduak	
	Balioa	Δ%	Balioa	Δ%	Balioa	Δ%	Balioa	Δ%	Balioa	Δ%	Balioa	Δ%
Establezimenduak (kopurua)	14.088	-0,4	456	-2,1	599	-4,0	3.679	-1,4	200	4,2	9.154	0,2
Langile okupatuak (kopurua)	53.295	1,7	4.585	-5,8	1.305	0,1	19.451	0,3	9.397	11,6	18.557	0,7
Negozio kopurua	5.263.713	2,3	498.250	-1,4	113.300	3,6	2.050.992	3,5	584.737	20,3	2.016.434	-2,2
Hornidurak	2.018.269	1,3	92.418	-3,2	20.431	14,5	850.129	5,6	167.795	6,7	887.496	-3,2
Langile gastuak	1.326.080	3,1	165.179	-6,2	27.544	1,1	519.820	0,5	300.664	19,1	312.873	0,1
Kanpo-zerbitzuak	1.106.968	3,1	178.733	2,3	45.288	-2,6	435.369	7,5	51.162	-2,4	396.416	0,3
Ekitaldiaren emaitza	647.426	3,2	3.949	-55,2	23.869	113,6	188.166	-3,0	54.475	172,2	376.967	-4,1

Iturria: Eustat. Zerbitzuen estatistika

Maila zehatzagoan, jaki eta edarien atalaren barruan, jatetxeen jarduera da garrantzitsua: fakturazioa kopuru osoaren % 44,1koa izan zen eta enplegua % 41koa. Hala, bere negozio-zifra % 3,5 hobetu zuen aurreko urtearekin alderatuta eta enplegua % 0,3 handitu zen. Edari-establezimenduen azpisektoreak aurreko urtean baino pisu pixka bat txikiagoa izan zuen: fakturazioa % 2,2 txikitu zuen, baina enpleguan igoera txiki bat izan zuen, %0,7koa. Azkenik, atal honetan, bestelako jaki-zerbitzuen azpiatalaren bilakaera nabarmen da –catering-a barne hartzen du, besteak beste–. Bere negozio-zifra %12,6koa eta enplegua % 19,8koa bakarrik baldin badira ere, azken honetan hazkunde adierazgarria izan du (% 11,6), baita negozio-zifran ere (% 20,3).

Ostatu-zerbitzuen kasuan, hotelen azpisektoreak enpleguaren % 5,8 galdu du eta negozio-zifra % 1,4 murriztu. Hala, negozio-zifra osoaren % 81,5 bereganatu du eta atal horretako enpleguaren % 77,8. Aldiz, bestelako ostatu azpisektorearen negozio-zifra % 3,6 handitu da, baina enplegututako jende kopuruan ez da aldaketa nabarmenik izan (% 0,1).

Lurraldeka, sektore osoa kontuan hartuta, 2013an, fakturazioan hiru lurraldeek bilakaera positiboa izan zuten, eta Bizkaia kenduta, enplegu arloan ere bai. Fakturazioari dagokionez, 2013an, Gipuzkoan, non Euskal AEko salmenta guztien % 35 egin baitziren, salmentek % 2,5 egin zuten gora eta % 4,8 enpleguak. Araban, enpleguaren hazkundera % 2,9koa izan zen eta fakturazioarena % 1,6koa; salerosketen kopuru osoaren % 14 bereganatu zituen. Bizkaian, ostalaritza sektorearen fakturazioa 2012an baino % 2,4 handiagoa izan zen; hala, guztizko salmenten % 51 bereganatu zituen, baina langile kopurua % 0,7 murriztu ziren.


2. koadroa. Aldagai nagusiak, lurralde historikoaren arabera (mila euro). 2013

	Euskal AE		Araba/Álava		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Balioa	Δ%	Balioa	Δ%	Balioa	Δ%	Balioa	Δ%
Establezimenduak (kopurua)	14.088	-0,4	2.073	-0,4	7.605	-0,2	4.410	-0,9
Langile okupatuak (kopurua)	53.295	1,7	7.262	2,9	27.208	-0,7	18.825	4,8
Negozio kopurua	5.263.713	2,3	736.245	1,6	2.683.886	2,4	1.843.582	2,5
Hornidurak	2.018.269	1,3	292.304	1,8	1.025.413	0,4	700.552	2,4
Langile gastuak	1.326.080	3,1	172.939	1,9	672.276	2,9	480.865	3,9
Kanpo-zerbitzuak	1.106.968	3,1	153.725	-1,4	574.569	4,2	378.674	3,4
Ekitaldiaren emaitza	647.426	3,2	87.157	-1,4	330.333	7,6	229.936	-0,8

Iturria: Eustat. Zerbitzuen estatistika

Ostalaritza sektoreko establezimenduen neurria aztertuz gero, establezimenduen % 94,7 mikroenpresak (10 enplegatutik behera) direla ikus dezakegu. Mikroenpresa horiek fakturazio guztiaren % 64,8 sortu zuten, eta landunen % 59,3 jardun ziren haietan. Enpresa txikiak (10-49 pertsona landun) establezimenduen % 5,1 ziren; enpleguen % 22,8 haiei zegozkien eta % 23,6 fakturatu zuten. Azkenik, 50 langileko edo gehiagoko enpresek (enpresa ertain eta handiek) guztizkoaren % 11,6 fakturatu zuten eta landunen % 17,9ri eman zioten enplegua. Establezimenduen % 0,2 ordezkatzeko du talde honek.

2. grafikoa. Euskal AEko ostalaritza sektoreko establezimendu kopuruaren, landunen eta negozio-zifraren banaketa, enplegu-estratuaren arabera. 2013



Iturria: Eustat. Zerbitzuen estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Zerbitzuen estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiagoo